

EAEko jarduera ekintzailearen tasak behera egin du 2009an aurreko urtearekin alderatuta.

- **GEM EAE 2009 txosteneko datuek erakusten dute EAEko biztanleria aktiboaren %2,75ek enpresaren bat sortu duela azken 42 hilabeteetan.**
- **Azterlaneko datuen arabera, 2009an EAEn azken sei urteetako enpresen ixte edo uzte handiena izan da, %1,35.**

Donostia, 2010eko uztailaren 26a- Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuak eta Eusko Ikaskuntzak 2009ko Global Entrepreneurship Monitor (GEM) txostena argitaratu dute gaur, Deustuko Unibertsitateko, Mondragon Unibertsitateko eta UPV-EHUko ikertzaileek egina.

Azterlanak EAEko enpresen sorrera alderatzen du Espainiako beste autonomia erkidego batzuetakoekin eta beste herrialdeekin. Era berean, erkidegoko hiru lurralde historikoen arteko alderapena ere egiten du.

Seigarren edizio honetan, GEM txostenak erakusten digu jarduera ekintzaileak beherakada nabarmena bizi izan duela, aurreko urteetan, ekonomiaren goraldian, handitzen joan bazen ere. Adituen arabera, egoera horrek bi arrazoi ditu: alde batetik, zikloaren inflexioa, eta bestetik, gaur egungo finantza krisiaren eraginez, kredituaren murrizketa handia.

Gipuzkoa da oraindik ere EAEn jarduera ekintzaile handieneko lurraldea, %3,5arekin. Ehuneko horrekin, EAEko batez bestekoaren (%2,75) gaineratik dago. Bizkaia eta Araba, ordea, batez besteko horren azpitik daude, %2,5eko eta %2,1eko tasarekin, hurrenez hurren.

Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekintzailea Espainiako batez bestekoaren (%5,1) azpitik dago eta hainbat herrialde garaturen mailan, esate baterako, Japonia, Alemania, Belgika edo Danimarka. Datua koherentea da ekintzailetzaren eta garapen mailaren arteko harremanarekin, harreman hori beherakorra baita. Izan ere, ekintzailetza handiagoa da garapen txikiagoko herrialdeetan (Uganda edo Bolivian, esate baterako) eta nahiko txikia herrialde garatuetan. Estatu Batuak salbuespen bat dira eredu honetan.

EAEko portaera desberdinaren arrazoietako bat langabeziaren eragin txikiagoa izan daitekeela jasotzen du ikerketak, eta horregatik, eragin txikiagoa du EAEko jarduera ekonomikoan langabetuek enpresa berriak sortzeko joerak dio. Azalpen hori azpimarratuko luke, baita ere, "beharrak eraginez" ekintzaile direnen tasa EAEn Espainian baino txikiagoa izateak (%11 EAEn eta %16 Espainian).

EAEn ekimen ekintzaileak gutxiago izan direla aipatu badugu ere, sortutako negozioen dimentsioa aurreko urteetakoa baino handiagoa da. Espainiarekin alderatuta, EAEn ekintzailetza txikiagoa bada ere, sortzen diren enpresen dimentsio eta finantza bultzada handiagoa dute. Horrela, erkidego honetan abiarazteko hasierako kapitala 2,5 aldiz

handitu da. Txostenak adierazten ditu, baita ere, EAEn sortutako negozio berrien berrikuntza maila, sortutako enplegua eta esportatzeko ahalegina Espainiako gainerako autonomia erkidegoetakoa bano handiagoak izan direla.

Jarduera ekintzaileari laguntzen dioten inguruneko baldintzatzaileei dagokienez, elkarrizketatutako adituen iritziz EAEn azpimarratzekoak dira, azpiegitura fisikorako aukera, kontsumitzaileak berrikuntza baloratzea, hazkunde handiko jarduerak sustatzea, gobernuaren laguntzak, eta ekintzaileari eskaintzen zaizkion laguntzak eta babesak.

GEMek beste datu esanguratsu bat ere eskaintzen ditu: ekintzaile elkarrizketatuen %1,35ek dio 2009an negozioa itxi duela. Ixtearen arrazoi nagusiak honakoak izan dira: negozioaren errentagarritasun eskasa (%40,7), finantzaketarik eza (%25,9) edo norberaren arrazoiak (%11,1). Itxieren %7,4 besterik ez zen alde aurretik planifikatu.

Etorkizunari begira, EAEn biztanleriaren %3,52 prest dago hurrengo hiru urteetan negozio berri bati ekiteko. Espainian batez besteko hori %5,1ekoa da.

Enpresa ekimen motak

EAEn 2009an abian jarritako enpresa ekimenen hiru laurdenak zerbitzuen sektorekoak dira. Horietako gehienak azken kontsumitzaileari zuzendutako zerbitzu enpresak dira. Gainera, urte horretan sortutako enpresa askok produktu edo zerbitzu berezia eskaintzen dute eta horietatik %18,2k ez du beste lehiakiderik ikusten merkatuetan.

Ekimen berrien zati garrantzitsu bat internazionalizatzeko eitearekin jaiotzen dira. Enpresen %35,5ek atzerrian bezeroen bat badu eta haueetatik %21,6k bezeroen laurdena du atzerrian.

Ekintzailearen profila

EAEko ekintzaile gehienak gizonetzkoak dira, goi mailako ikasketak edo lanbide heziketa dutenak. Enpresa aukera ona ikusi ondoren sortzen duten negozioa eta ekiterakoan motibazio nagusia lanena independentzia handiagoa lortzeko beharra izan dela diote.

Emakumei dagokienez, famili errenta txikiagoa dute eta heziketari dagokionez, goi mailako ikasketak dituzten emakume ekintzaileen ehunekoa gizonetzkoena baino handiagoa da. Nolanahi ere, ikasketarik gabeko emakumeen talde handia ere bada.

Azpimarratzekoa da ekintzaileen herena inguru 35 eta 45 urte artekoa dela. Ikertzaileen ustez, Euskal Autonomia Erkidegoaren bilakaera demografikoak, zahartzearen joera nagusi dela, etorkizunean bertako ekintzailetza tasari eragin diezaioke.

Proiektu ekintzaileen finantzaketa

Aurreko urteetan, ia ekintzaileen erdiak proiektua abian jartzeko kapitala osorik bere baliabideetatik jartzen zuen. Oraingoan, ordea, hamar ekintzailetatik bik besterik ez dute horretarako aukerarik izan.

Kasurik gehienetan, besteren finantzaketa hainbat iturritatik dator. Lagunek eta familiak emandako inbertsioa areagotu egin da azken urtean. Horrela, EAEn beste autonomia erkidego batzuetan baino garrantzi handiagoa du iturri horrek.

Azterlana osorik jaitsi nahi baduzu, egin klik [hemen](#)

Informazio gehiago

Lorea Larrabeiti

comunicacion@orkestra.deusto.es

0034 943 297 327

Orkestra. Lehiakortasunerako Euskal Institutua

2006an sortua, Deustu Fundazioaren Lehiakortasunerako Euskal Institutuak (Orkestra) Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioen, eragile sozio-ekonomikoen eta unibertsitate guztien jarduerari laguntzea du helburu, lehiakortasunari lotutako gaietan. Orkestra Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte aldakor eta berritzaileak eskatzen dituen lehiakortasunaren eta ongizatearen benetako bideak identifikatzeko sortu zen, politika publikoen garapena eta enpresen agenda pribatuak bideratzeko eta bizkortzeko, funtsezko hiru funtzioaren garapen sinergikoaz baliatuz: ikerkuntza, elkarrenergina eta heziketa. Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean du egoitza nagusia, eta laguntzaile sare garrantzitsua du, horien artean azpimarratzekoak, sustatzaile nagusiak izan direlako, Eusko Jaurilaritza –SPRIren bitartez–, Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskaltel, Kutxa eta Repsol-Petronor.

Eusko Ikaskuntza

Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos, (EI-SEV) erakunde zientifiko-kulturala da, izaera pribatua duena, 1918an Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Aldundiek sortua, euskal kultura garatzeko baliabide egonkor eta iraunkor gisa. EI-SEV Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Ipar Euskal Herrian ezarpen ofiziala duen diziplina anitzeko zientzia erakunde bakarra da. Elkargune den erakunde zientifiko kultural gisa, Euskal Herriaren eta/edo bertatik jakintza aztertu, ikertu eta zabaltzen du, haren aurrerapena bultzatzeko eta gizarte kohesioa eta partekatutako nortasunak sustatzeko. EI-SEVen helburuak dira euskal kulturaren balio tradizionalak finkatzea, kultura goratzea eta hedatzea, eta euskal kulturako eskualdeetan bizi diren pertsona guztien mesederako izango diren balio berriak sortzea.